



Sagardoetxea, sagardoaren kulturaren alde lanean!

Astigarragako Udalaren ekimenez, Sagardoetxearen etorkizuneko norabidea erabakitzekeo prozesua landu da herritar, elkarte eta eragileek osatutako hausnarketa taldean. Sagardoaren kulturaren alde elkarlanean aritzeko jasotako erantzuna zabala eta parte-hartzaileek agertutako jarrera ona izan dira eta Sagardoetxean sagardoaren kulturaren alde lanean jarraituko dugu etorkizunean ere.

2021eko martxoan gogoz ekin genion Sagardoetxearen etorkizuna erabakitzekeo prozesuari. Lanke-ta hura egiteko, herritarrekin, herriko elkarteekin eta eragileekin osatutako hausnarketa taldea eratu zen eta ekainera bitartean etorkizunera begirako norabidea lantzeko bilerak gauzatu genituen herritar eta elkarten parte hartze zabalarekin. Lan dinamika horretan, honako puntu esanguratsu hauek adostu

genituen: ekimen eta proiektu berriak eskualdeko izaera gainditzea; bertako ekonomia, merkataritza eta turismoa sustatzea; **sagardogileak, sagarraren sektoreak eta administrazioak elkarlanean aritzea**; finantzaketa administrazioen artean gauzatea; eta proiektua estrategikoa izatea eta herriaren dinamikan errotua egotea.

Bilera haietan parte hartu genuenok argi ikusi genuen gaur egun biltegietan gordeta ditugun gure baserrietako 400 pieza etnografikoak ikusgai jartzeko eta museoan toki gehiago izateko beharra zegoela, eta beraz, herritarren ondarea dena, herritarren eskura jarri eta gure herriko kultura ezagutarazteko pausoak eman behar zirela.

Pieza horietako bat da txalapartarekin lotura estua duen **Erbetegi Etxeberri baserriko dolare** ikusgarria. Pieza hau harribitxi bat da Astigarragako sagardoaren kultura balioan jarri eta sagardogintzak gure historian izan duen garrantzia ulertzeko, baina herritar askok ez du ezagutzen. Eta beste hainbeste gertatzen da **Gartziategi sagardotegiko zerrarekin** ere: sagardogintzak Astigarragako historian izan duen eragina ulertzeko funtsezkoa eta azkenetariko upelgile batek utzitako tresna da, baina hau ere biltegian gordeta dago.

Bi horiek gaur egun gordeta dauden herritarren ondarearen bi adibide baino ez dira, izan ere, urteetan zehar asko izan baitira astigartarren aldetik jasotako dohaintzak. Tamalez, biltegian gordeta egotearen eraginez, asko hondatzen ari dira eta premiazkoa da horiek kaleratu eta ikusgai jartzea.

Gauzak horrela, bilera haietan etorkizuneko proposamena irudikatzeari eta pieza horiek ikusgai jartzeko aukera eman zezaketen Sagardoetxearentzako etorkizuneko **kokapenik egokienak** pentsatzeari ekin genion. Aukera guztiak ondo aztertu ostean, behar horri erantzuna emango zieten bi irtenbide ikusi ziren: lehenengoa, egoitza berria Kontxa Etxeberria lorategian kokatzea; eta bigarrenkoa, Sagardoetxeako egoitzak gaur egun kokatua dagoen toki berean jarraitzea, alegia, Astigarragako Kultur Etxe zaharrean.

Hori bai, prozesuan parte hartu genuen herritarrok oso argi genuen Sagardoetxearen proiektu berriak ez zituela inolaz ere herriko aurrekontuak eta gainerako zerbitzuak nahiz proiektuak baldintzatuko; alegia, proiektu hau gauzatzeak ez zuela herriko beste proiektu baten egikaritza oztopatuko. Eta horixe zen Sagardunen nahia ere.

Hala, otsailaren 6an herri galdeketa izan zen eta herritarrek Sagardoetxearen egoitza berria Kontxa Etxeberria lorategian ez jartzeko emandako erantzuna oso argia izan zen. Beraz, gaur egungo kokapenean museoak dituen beharrei erantzuna emateko hobekuntzak egitea baino ez zaigu geratzen, orain arte egin dugun bezala, sagardoaren kulturaren alde lan eginez.

Izan ere, Sagardoetxean **milaka bisitari** jasotzen ditugu urte osoan zehar eta esan beharra daukagu oso harro sentitzen garela etortzen diren ikastoletako haurrei, aisialdi taldeetakoiei, kultur elkartei, hirugarren adinekoei, Euskal Herria osoko familiei nahiz mundu osoko txoko guztietatik etortzen diren turistei gure kultura zabaltzeaz; gurekin igarotzen duten denbora tartean gure arbasoen bizimodua nolakoa zen azaltzen diegu, gure herria eta gure hizkuntza zer eta nolakoak diren adierazita. Horregatik, gu beste herrialdeetara joaten garenean bezala sentiarazi nahi ditugu gurera etortzen direnak ere.

Gure ustez herri bezala nora goazen ulertzeko ezinbestekoa da gure iragana ezagutzea eta gure ondarea maitatzea. Horregatik, **Sagardoetxean sagardoaren kulturaren alde lanean jarraituko dugu, herri honek berezko ondarea duelako, gure ondarea ere badelako eta gure arbasoengatik oinordetzan jaso duguna maite dugulako.**

Sagardun Partzuergoa

